

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Guztiok dakigu bidaiak, ebentuk eta ospakizunak antolatzea oso estresantea dela eta laguntza behar dugula. Hori egiteko, **Great! Eventos** sortu dugu, bezeroak nahi dituzten gauzak antolatzen dituen enpresa. Beste enpresekin kolaboratuz, gure zerbitzua arriskuak murrizten ditugu, pertsona asko zure proiektuaren gainean daudelako. Gainera, pertsona gehiagorentzat sortzen da lana, beti ona den gauza bat.

Gure helburua bezeroen bizitzak errazagoa egitea da eta haien estres maila jaitea prezio baxu batengatik. Bezeroek aurrekontu bat ematen digute eta gu gure enpresatik kanpoko zerbitzu batzuk lortzen saiatzen gara, guztiak gure bezeroen lehentasunekin bat datozenak. Pertsonalizazioari ezker bezeroarentzat erosotasuna ziurtatzen dugu.

Gure balioa kualitatiboa da, pertsonalizazioari lehentasuna ematen diogulako. Garrantzia handia ematen diogu bezeroen beharrei. Pertsonalizazioa hoberen egiteko, bezero bakoitzari galdetegi bat egingo diogu, bere interesak jakiteko.

Beste enpresa batzuetatik bereizten gaituena gure zerbitzua ikuspuntu gazte batetik eskaintzen dugula eta edozein pertsonarentzako nahietarako prest gaudela da. Bezeroen ideiak errespetatzea garrantzitsua da guretzat; haien ebentua, bidaia edo ospakizuna denez, beraiei gustatzen zaiena izan behar delako.

